

MERKATUAREN AZTERKETA?

Gure merkatua maskotak dituzten eta une batzuetan haien zaintzaz edo garraioaz arduratu ezin diren pertsonak dira. Horien artean daude lan asko dutenak, bidaiatzen dutenak edo adinekoak, eta beren animaliak seguru eta ondo zainduta egotea nahi dutenak. Gehienbat hiri eta ingurune urbanoetan aurkitzen dira, non jendeak denbora gutxiago duen eta laguntza gehiago behar duen. Beraz, gure zerbitzua maskoten jabe arduratsuei zuzenduta dago, beren animaliak ondo zainduta egon daitezen nahi dutenei.

ZEIN SEGMENTUETARA AILEGATZEN GARA?

Erabiltzailea edo eroslearen ezaugarrien arabera segmentazioa

Irizpide geografikoak:

- Gure zerbitzua Euskadin bakarrik emango da, hiriburuetan eta hurbileko eskualdeetan: Bilbo, Donostia-San Sebastián eta Gasteiz.
- Kontzentrazioa hiriguneetan eta biztanle-dentsitate handiko eremuetan izango da.

Irizpide demografikoak:

- Adina: helduak, familia duten pertsonak.
- Familia-egoera: dibortziatuak edo bananduak, familiak, maskota partekatzen dutenak.
- Beste talde batzuk: adinekoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak.

Irizpide sozioekonomikoak:

- Errenta-maila ertain-altua: maskoten segurtasuna eta erosotasuna garrantzitsua duten pertsonak.
- Lanbideak: lanean ari diren helduak, familia lanpetuak.

Irizpide psikografikoak:

- Etxean denbora gutxi igarotzen duten pertsonentzako.
- Maskota zaleak, beraien animaliak ondo zaintzea lehenesten dutenak.

|

Erosketa eta kontsumoaren jokabidearen arabera segmentazioa

- Erosketaren maiztasuna: astean edo hilean behin, maskota garraiatzeko beharraren arabera.
- Ordutegia: bezeroen ordutegiari egokituta, goizez edo arratsaldez.
- Markarekiko leialtasuna: zerbitzu segurua eta fidagarria eskaintzen duen enpresa bat nahi dute, aldaketak saihesteko.

Erosketaren zergatia azaltzen duten irizpideen arabeko segmentazioa

- Bezeroek maskota seguru eta eroso garraiatzea bilatzen dute.
- Denbora aurrezteak: ezin dute beraiek eramaten, lana edo bidaiak direla eta.
- Trankilitate psikologikoa: maskota zaindu eta seguru dagoela jakitea.